

# **Txirrita**

## **40 urte**

**2016ko maiatza**

# Aurkibidea

|                                     |    |
|-------------------------------------|----|
| Sarrera.....                        | 4  |
| Lizarrietara bidean.....            | 5  |
| Lizarrietako tiroketa .....         | 6  |
| Autopsia eta informe poliziala..... | 11 |
| Bertsio desberdinak .....           | 13 |
| Argitu gabeko kasua .....           | 19 |
| Oharrak .....                       | 20 |
| Azken orduko oharrak.....           | 24 |
| Argazkiak eta agiriak .....         | 25 |

**Egilea:** Ander Lizarralde

**Maketazio eta inprimategia:** Gertu, Oñati

## ■ Sarrera

Berrogei urte pasatu dira ETApM-eko talde bateko hiru kidek eta beraiekin zihoan mugalariak Saratik Etxalarrera bidean Guardia Zibilekin tiroketa bat izan zutene-tik. 1976ko apirilaren 25ean (1), igande goizeko zortzirak eta laurdenetan, izan zen tiroketa eta bertan Iñaki mugalaria atxilotu zuten eta Txirrita desagertu egin zen. Taldeko beste bi kideek, Bordak eta Talak (2), ihes egitea lortu zuten. Hilabete eta egun batzuk beranduago, maiatzaren 28an (3), Txirritaren gorpua agertu zen Sarako ba-soetan

Kasuak argitu gabe jarraitzen du eta horregatik, egun hartan gertatu zenaren ingu-ruko informazioa batzeko asmotan, txosten hau osatu dugu

Txostena osatzeko Txirrita desagertu zen egunean Lizarrietan berarekin batera zeu-den hiru kideen (Borda, Tala eta Iñaki) laguntza izan dugu. Horrez gain, familiakoen testigantza, garaiko prentsa, liburu desberdinak, eta artxiboetan aurkitutako pape-lak erabili ditugu. Nahi adina informazio ez dugu lortu eta ondorioz txosten hau pro-bisionala eta osatu gabea da

Lizarrietako tiroketa gertatu baino bi hilabete lehenago hamabost etakide inguru (ETApM) Arjerliako kanpamentu militar batetara joan ziren entrenamendua hartzera. Bertan era guztietako trebakuntza jaso zuten: korrikaldi luzeak, armen erabilera eta abar. Hamabost lagun haietatik hiru Borda, Tala eta Txirrita ziren. Iñaki ez zen han izan

Arjelian bi hilabete egon ondoren ipar Euskal Herrira itzuli ziren, ordurako hego-alde-tik ihes eginda baitzeuden. Iritsi eta laster Borda, Tala eta Txirritari hegoaldera joateko abisua iritsi zitzaien. Muga pasatzeko Iñaki mugalariaren laguntza izango zuten. Taldeko arduradun lanak Bordari egokitu zitzaizkion. Pakito eta Apalak egin beharrekoaren nondik norakoak azaldu zizkioten Bordari. Hasiera batean behintzat, berak bakarrik jakingo zuen zertara zihoazen iparralde-tik hegoaldera. Martutene-ko kartzelako preso batzuk antolatzen ari ziren ihesaldian laguntza ematea izango zen euren lana (4)

## ■ Lizarrietara bidean

Iñakiren arabera Erdi izeneko batekin elkartu ziren Hendaian eta berak eraman zituen Sarara. Gaueko hamaikak inguru ziren Sarara iritsi zirenerako

Gauaren ilunpearen babesean zeharkatu nahi zuten muga. Lizarrietako gainean zaintzarako etxe bat zeukaten Guardia Zibilek. Gaueko momentu jakin batean erreleboa egiten zuten eta une zehatz horretan beste etakide batekin zita egina zuten Lizarrietako gainetik gertu. Hura kotxean izango zuten zain eta Donostiaraino eramango zituzten

Saratik Lizarrietara hamar kilometro inguru daude errepidez. Lizarrietatik Etxalarra beste hainbeste. Oinez, basoan zehar gora eginez, gutxiago. Halako mendi eta baso bideak behin eta berriz erabiltzen zituzten muga pasatzeko. Ez ziren lehenengo etakideak muga pasatzeko bide hura erabiltzen zutenak (5)

Sarako basoetan barneratu eta bideari ekin zioten. Laurak ilaran, ilunetan, isilik. Iñaki aurretik, Borda, Txirrita eta Tala atzetik, pausoz pauso, aurrera eta aurrera

Halako batean, inork deitu gabe, zorte txarraren bisita ailegatu zitzaien. Basoan gora zihoazela Iñaki mugalariak zulo batetan sartu zuen hanka. Bideak oso ondo ezagutzen zituen, baina despistatu eta zuloaren espazio hutsean hanka baten irudia agertu zen. Iñakik esan digu zehazki bi haitzen artean sartu zuela hanka. Esginze bat egin omen zuen orkatilan

Gauaren ilunaren errua izango zen neurri batean. Izan ere, kontua da linternarik eta inolako argirik gabe barneratu zirela basoaren sabelean. Arriskutsua zen bidea argitzeko linterna piztuta eramatea, hala eginez gero arbola arteko ipurtargi bihurtzen ziren-eta. Zerua lainotuta eta linterna eta inolako argirik gabe, ez da harritzekoa Iñakik pauso okerra eman izana. Berarengana zuzendu zen Borda: *“Ze moduz Iñaki? Jarraitzeko moduan al hago?”* Eta baietz, jarraitzeko moduan zegoela. Baina denbora gehiegi galdu zuten ezusteko haren erruz eta horrek handik aurrerako gertakari guztiak baldintzatu zituen

Lizarrietan zita egina zuten kotxez Donostiaraino eramango zituen etakidearekin. Baina hura zegoen tokira puntual iritsi beharra zeukaten. Gertu zegoen Guardia Zibilen zaintza postua eta kotxez zain zeukaten etakidearentzat arriskutsua zen han denbora askoan egotea. Mugalariak hanka zuloan sartu ondoren denbora gehiegi galdu zuten berriz martxan jarri aurretik. Eta kotxean zain zeukaten etakideak ez zuen alde egin beste aukerarik izan. Borda, Tala, Txirrita eta Iñaki jakitun ziren ordurako ez zutela txoferrik zain izango eta beste zerbait pentsatu beharko zutela. Behin hartara ezkerre bi aukera zeuzkaten, bat atzera egitea eta Sarara itzultzea. Bestea aurrera jarraitzea eta Etxalarreraino jaistea. Mugalariari galdetu zioten aber Etxalarrera jaistea posible ikusten zuen. Mugalariak baietz erantzun zien, posible zela Etxala-

rreraino jaistea, baina Lizarrietako gaina hartu orduko egunargi izango zela, eta gauaren iluntasunaren babesik ez zutela izango

Zer egin ondo erabakitzeko detaile guztiak kontuan hartu beharra egongo zelakotan Bordak ordura arte berak bakarrik zekiena kontatu zien besteei: nora zihoazen eta zertara. Donostiara zihoazela eta bertan Martuteneko kartzelako presoak presatzen ari ziren ihesaldian laguntzea zela beraien lana

Zalantza, zerebroko bakea haustera datorren lantza. Ez zekiten zer egin. Baldintza berriak agertu ziren eta aukera bakoitzaren xehetasunak aztertu beharra zegoen. Ez zuten argi ikusten ze erabaki izan zitekeen une hartan egokiena. Pentsatzen jarri ziren. Isil-isilik zegoen basoa. Isil-isilik zeuden zuhaitzak. Borrokakide erraldoiak ziruditen. Beraien hosto belarrietatik entzuten al zeuzkaten ? Aurrera edo atzera, zirt edo zart, baina zerbait erabaki beharra zuten, ezin ziren zuhaitz bihurtu arte baso hartan geratu. Botazio bat egin zuten. Tala eta Bordak aurrera jarraitzearen aldeko botua eman zuten. Txirritak atzera egitearen alde botatu zuen eta Iñaki mugalariak berari berdin zitzaiola esan omen zuen. Aurrera beraz !

Bordak dio bere bizitzako erabakirik txarrena orduantxe hartu zuela. Taldeko arduraduna bera zen eta gau hartan hartu zuen erabakiak gaur bertan ere buruko mina sortzen omen dio. Erabaki haren ondorengo gertakarien zama bizkar gainean darاما oraindik

## ■ Lizarrietako tiroketa

Behin aurrera jarraitzeko erabakia hartuta basoan gora egin zuen laukoteak. Mugalariak aurreikusi bezala, egunargi zen (zortzirak eta laurden inguru ziren) Lizarrietako gaina hartu zutenerako. Lizarrietan pago-basoa amaitu egiten da eta baso-errepide bat dago bertan. Han kokatzen da muga. Gero zelaigune bat zabaltzen da eta horri deitzen zaio Lizarrieta. Zelaigunearen behekaldean Guardia Zibilen zaintza postua zegoen eta ikusi ez zitzaten makurka, bizkarreko mina daukan agurearen posturan, zelaia zeharkatzen hasi ziren. Baina alferrekoa izan zen gorde-gordeka ibiltzea. Guardia Zibilak zain zeuzkatela ohartu ziren (6)

1976ko maiatzaren 27ko ABC-n honela kontatzen da enkontru hura:

“ ... fuentes de la Guardia Civil nos han informado que el pasado día 25 de abril, a las ocho quince de la mañana, una patrulla de la Benemérita de servicio en el collado de Lizayeta (Navarra), en las proximidades de la frontera francesa, advirtió cómo cuatro individuos jóvenes, vistiendo prendas montaÑeras, se internaban en España en las proximidades de la muga fronteriza 44. Al serles dada la voz de alto respondieron con fuego de pistola y escopetas, por lo que los componentes de la citada patrulla respondieron haciendo uso de sus armas”

Ordenaren eta bakearen defentsoreen eta etarra extremisten arteko tiroketa bezala deskribatu zuen enfrontamentua Unidad egunkariak 1976ko apirilaren 26an:

“Navarra sigue siendo actualidad desgraciadamente por los sucesivos enfrentamientos que se vienen produciendo estos últimos días entre los defensores del orden y la paz con comandos de extremistas etarras que en sucesivas oleadas pretenden alterar la pacífica convivencia. El último de estos enfrentamientos tenía lugar sobre las ocho y cuarto de la mañana de ayer”

Muga zeharkatzera zihoazela Guardia Zibilekin topo egin zuten. Kasualitatea izan ote zen? Guardia Zibilek inguruak zaintzeko ohiko lanetan zebiltzala ikusi al zituzten? Ez dirudi hala izan zenik. Izan ere, Lizarrietara igo zirenean bi Land Rover handi, hamar bat Guardia Zibilekin, Etxalardik gora nola zetozen ikusi baitzuten etakideek. Eta haiek ez zihoazen zizak batzera. Abisua jaso eta zaintza postuan zeuden bospasei Guardia Zibilei errefortzua ematera iritsi zirela dirudi. Baina Lizarrietan zeuden Guardia Zibilek errefortzua eskatu bazuten horrek esan nahi du etakideren batzuk han inguruan zebiltzala jakitera ailegatu zirela. Euren ibileren berri izatea lortu ote zuten? Baina nola? Iparraldetik segitu zituzten? (7) Basoan zerbait arraroa sumatu zuten Guardia Zibilek? Kotxean itxaroten izan zuten etakidea ikusi zuten? Auskalo, ezin jakin

Land Rover-ean igo ziren Guardia Zibilak zaintza postuan zeudenekin elkartu eta barrera moduko bat osatu zuten larrean hamabost Guardia Zibilen artean. Etakideak larrearen gune batean eta eta ehun metro ingurura Guardia Zibilak. Oihu bat iritsi zitzairen airearen uhinetan: *Alto, la Guardia Civil, alto, la Guardia Civil*. Sarako basoetan ikusitako pagoen adarrak bezala besoak altxatu eta entregatzeko aukera izan zuen laukoteak. Ez zuten halakorik egin, ez ziren entregatu. Zergatik entregatu ihes egiteko aukerak bazituzten?

*“Al serles dada la voz de alto respondieron con fuego de pistola y escopetas, por lo que los componentes de la citada patrulla respondieron haciendo uso de sus armas”*. Hala dio ABC-k, baina hori gezurra dela dio Bordak. Berak dioenez Guardia Zibilen fusiletatik irten ziren lehendabiziko tiroak. Bi abisu eman eta hirugarrenean tiroka hasi omen ziren. Lizarrietako zelaian belar meta zeuden eta tiroketa hasi zenean haien atzean gorde ziren Borda, Tala, Txirrita eta Iñaki. Remington eskopetak eskuan hartu eta tiroka hasi ziren eurak ere

Desbentaja nabarmenean zeuden, ordea, aurrean zituzten armadunekiko. Alde baretetik arma eskasagoak zeuzkaten. Etakideek pistolak eta Remington eskopetak zeuzkaten eta Guardia Zibilek, berriz, Zeta metrailetak eta tiro fijoko Cetme fusilak. Fusil horiek distantzia luzetarako balio dute eta Remington eskopetak, berriz, distantzia motzetarako egokiagoak dira. Eskuko bonbak ere bazituzten, baina ez zieten balio ehun metrotara jaurtitzeko indarrrik ez baitu giza besoak. Armatan zeukaten des-

bentajaz gain, borrokalari kopuruan ere alde nabarmena zegoen: etakideak lau ziren eta Guardia Zibilak berriz hamabost inguru. Bordak ez du gogoratzen zenbat denbora iraun zuen tiroketak. Hogei minutu inguru iraun zituen 1976ko apirilaren 29ko La Voz de España egunkariaren arabera:

“Se estableció un tiroteo que duró aproximadamente 20 minutos ...”

Guardia Zibilek tiro asko bota al zizkieten galdetu diogu Bordari eta baietz erantzun digu, tiro asko izan zirela. Ehun, berrehun ? Ez digu zehaztu, baina tiro asko botatzek esan nahi du ez zituztela bota etakideak uxatzeko, baizik eta “jotzera” bota zituztela

Tiroketa hasi zenean belar meta baten atzean gorde ziren laurak. Muga pasatzen saiatzea erabaki zuten eta korrika hasi ziren aldapan gora. Iñaki zauritu egin zuten hankan eta besaurrean. Besteei alde egiteko esan zien eta bera lurrean geratu zen zaurituta Tiroka jarraitu zuten beste hirurek. Tiroak botatzen zituztenean Guardia Zibilak makurtu egiten ziren eta belar meta batetik bestera pasatzeko aprobetxatzen zuten Borda, Tala eta Txirritak. Korrikaldi bat egin, berriz ere babestu, tiro batzuk bota, beste korrikaldi bat ... oinetakoak kez, abiada bizian, zer gertatzen ari zen konturatzen ez ziren belartxo flakuak bata bestearen atzetik zapalduz. Argi zuten non zeukaten salbabidea. Metro batzuk atzera egin, Lizarrietako zelaia zeharkatu eta basoan barneratzea zen kontua

Halako batean tiro batek ia eskuan jo zion Bordari. Eskutik oso gertu eskopetaren kargadorean jo zuen tiroak. Eskopeta hondatuta geratu zitzaion eta abandonatu egin zuen. Pistola hartu zuen orduan

Ehun metro inguruan aritu ziren tiroka eta korrika. Eurak aurretik eta Guardia Zibilen balen txistu hotsa atzetik. Talak gogoan dauka Guardia Zibilen tiroen balak euren inguruko lurrean nola sartzen ziren eta lurak salto nola egiten zuen. Balak lurrean iltzatu ziren. Imajena Talaren oroimenean iltzatu zen

Lizarrietan goiz hartan gertatu zenaz honakoa idatzi zuen Ixabel Etcheberriak (8) Gara egunkarian 2014ko martxoaren 31an atera zuen artikuluan:

“Pentzearen erdian zeuden gazteak, inon gordetzeko aukerarik ez; aukeran belar metak, baina oso harresi mehe eta guardi zibilek zituzten armei aurre egiteko deusik ez. Lasterka bizian abiatu ziren Sara aldera, baina tiroak hasi ziren, etengabeak, oinetatik hurbil erortzen, buruaren ondoan, ziuntan, ihesi, tranpa horretatik alde egiteko ahal bezain fite. Oihanera gordetzera, aldapa beheara, inguratuak izan baino lehen”

Sarako lurretan zegoen pago basoan barneratzeak libertatearen eremuan sartzea esan nahi zuen eta harantz zihoazen arrapaladan. Guardia Zibilek ez zeukaten auzoko estatu frantziarraren mugetan sartzeko eskubiderik eta debeku hori zorrotz erres-

petatzen omen zuten. Uniformez jantzita ezin dute hankarik sartu iparraldeko lurretan, hori egitea inbasio militartzat hartzen baita. Hori bazekiten hiru lagun haiek eta haurra amaren besoetara babes bila bezala, hala zihoazen pago baso hartara

Borda eta Tala aurretik zihoazen eta Txirrita pixka bat atzerago. Guardia Zibilen balak euri tanta horizontalak bihurtu ziren eta Guardiazibil-lainoak ongi kargatuta zeuden orduko hartan. Tiroek airea zulatzen jarraitzen zuten. Baina airearen biguntasunarekin konformatu ez eta bala batek haragi zati bat zulatzea lortu zuen. Oihu latz bat entzun zuten Borda eta Talak. Txirritagandik zetorren, berari zegokion balak zulatatu zuen haragiaren mina. Hankan jo zuten (*une balle au talon*). *Hankan jo naitek, segi zuek !* oihukatu zuen Txirritak

Korrika segitu zuten Borda eta Talak (9). Muga zeharkatzean burua atzerantz bueltatu zuen Bordak eta Txirrita zauritu zuten alderantz begiratu zuen. Guardia Zibilak ikusi zituen bertan. Ez zegoen zer eginik eta ez zitzaien pago-basoan barneratu eta ihes egitea beste aukerarik geratzen. Zauritu zuten lekuan Guardia Zibilik ikusi izan ez balute Txirritaren zain geldituko ziren, zaurituta egon arren, metro gutxi batzuk besterik ez baitzitzaizkion geratzen basoan barneratzeko. Distantzia txiki hori, arrastaka ez bada ere, zeharkatzea lortu izan balu Tala eta Bordarekin elkartuko zen basoan. Baina Guardia Zibilak ikusi zituen Bordak eta basoan barneratuz Sararantz bidea hartu zuten

Bitartean Iñakik zaurituta jarraitzen zuen. Bere ondotik Guardia Zibilak korrika pasatzen somatu zituen. Denbora gutxi barru gorantz begiratu zuen, besteak ihesi joan ziren lekurantz eta Txirrita ikusi zuen zauritu zuten lekuaren inguruan. Besoak altxatuta zegoela gogoratzen du eta bospasei Guardia Zibilek inguratuta zeukatela. Bera berriz, Iñaki, bakarrik utzi zuten. Hilda edo larriki zaurituta zegoela usteko zuten Guardia Zibilek eta horregatik ez zuten zainduko. Hala zegoela, lurrian zaurituta, gorputza tiroz josita, poltsikoan zeuzkan anfetaminetaz (10) gogoratu zen Iñaki. Halako muturreko kasuren bat suertatzen bazen ere, aldean eramaten zituen badaezpada. Haiek hartzeari eskerrak konortea galdu gabe egon zen hurrengo hiruzpalau orduetan

Txirrita Guardia Zibilez inguratuta ikusi ostean desagertu egin ziren bai Guardia Zibilak eta baita Txirrita ere. Iñakik bakarrik jarraitzen zuen, lurrian zaurituta. Une hartatik aurrera ez zuen gehiago Txirrita ikusi. Dozena bat Guardia Zibil inguru Txirrita zauritu zuten inguruan zebiltzala gogoratzen du

Ordu erdi pasa ondoren bospasei Guardia Zibil bera zegoen lekurantz arrimatzen ari zirela somatu zuen Iñakik. Eta halako batean Iñakiri tiroka hasi omen ziren. “Como medida de autoprotección” hasiko zirela tiroka dio Iñakik. Iñaki bizirik egon zitekeen eta Guardia Zibilei tiroka hasi zitekeen. Horregatik, halakorik gertatu baino lehen Guardia Zibilak eurak hasi ziren tiroka. Hala azaldu digu Iñakik. Ingurura ti-

roak iritsi zitzaizkionean “movimiento reflejo” bat egin zuela uste du Iñakik eta eskua aurpegiaren aurrean jarri zuela. Eta eskuan jo zion balak. Baina fusilaren balak eskua zeharkatu eta aurrera jarraitu lezake. Pistola zeukan eskuan, ordea, eta tiroak eskua pasatu ondoren pistolan jo zuen. Horrek salbatu zuela dio Iñakik

Une batean, Guardia Zibilen “mando” batek tiroka ari ziren Guardia Zibilei gelditzeko eta gehiago tirorik ez botatzeko agindu omen zien

Ehun metro ingurutik tiratu zioten Guardia Zibilek. Bera ez zen ohartu ze distantziatara zeuden Guardia Zibilak, baina ospitaleko medikuak fusilaren bala ikusi eta aztertu zuenean esan omen zion disparo haiek ehun metro ingurutik eginak zeudela. Tiro horien erruz hiru hatz galdu zituen

Iñakik zauri berri hauek jaso arren konortea galdu gabe jarraitzen zuen, aurrez aipatu dugun sustantzien eraginarengatik. Eta ospitalera eraman artean hala jarraitu zuen. Bitarte horretan, hiruzpalau ordu inguruz, zelaian etzanda egon zen (11). Eta esaten du Guardia Zibilak aurrera eta atzera ibili zirela, mugimendua zegoela. Hainbeste denboran zertan ibili ziren Guardia Zibilak?

Tala eta Borda, bitartean, Sarara jaitsi ziren basoan behera. Bidetan, badaezpada, armak gorde zituzten baso izkina batean, errekatxo baten ondoan, zuhaitz baten azpian, hostoz estalita. Jendarmeez armekin harrapatu izan balituzte, hori kartzelan sartzeko arrazoia zen eta hargatik erabaki zuten armak modu hartan ezkutatzea. Ze arma gorde zituzten galdetu diogu Bordari. Eskopeta bat, bi pistola eta eskuko bonbak, erantzun digu

Gertatutakoaren larritasunaren margoz aurpegiak, Sarako plazara ailegatu zirenean Talak ezagutzen zuen Senpereko gazte batekin topo egin zuten. Hark eraman zituen Hendaiara. Apalarekin elkartu ziren bertan eta harrituta geratu zen hura. Aberzer gertatu zen galdetu zien, uste zuela ordurako Donostian egongo zirela. Gertatutakoa kontatu zioten eta Apalak garbi izan zuen hasieratik: Lizarrietako larreetara itzuli behar ziren. Tiroketa goizeko zortzirak eta laurden aldera izan zen eta hamabiak aldera hurbildu ziren Apala eta Borda. Tala ez zen eurekin izan irteera hartan. Pare bat orduraz arakatu zituzten inguruak, batez ere tiroketa izan zen lekua. Izadiaren indiferentzia besterik ez zuten aurkitu. Beren lagunaren arrastorik ez zen han. Aurrez gorde zituzten lekutik armak jaso eta itzuli egin ziren (12)

Txirritaren familiarekin kontaktua egin zuten gertatu zenaren berri emateko. Txirritaren arrebari abisua pasa zioten iparraldera joateko. Bordarekin elkatu zen eta honek zer gertatu zitzaien kontatu zion

## ■ Autopsia eta informe poliziala

Lizarrietako larreetan ikusi zuten azkenengoz Txirrita. Gero hilabete eta egun batzuetan inork ez zuten Txirritaren berririk izan. Inork ez zekien non zegoen, ez erakundeak, ez familiak, ez *inork*. Desagertuta egon zen ... Itxaronaldi luze baten ondoren

Sarako basoetan agertu zen Txirritaren gorpua. Tiroketa apirilaren 25ean izan zen eta maiatzen 28an agertu zen gorpua

Orduan, gorpua agertu zenean, gertatu zena argitzeko bi bide zabaldu ziren: 1) Gorpua-ren autopsia egitea; 2) Gorpua agertu zen inguruari buruzko informe poliziala egitea

Gorpua agertu zenean Parisetik etorritako mediku forense batek egin zuen autopsia. Susmagarria omen da hori. Baionan bertan egongo zela lan hori egin zezakeen forenseren bat dio Talak, baina zerbaitegatik Parisetik ekarri zutela. Familiaren eskuetara ez da inoiz autopsiarik iritsi. Txirritarekin zer gertatu zen argitzeko inportantea litzateke autopsia horrek hitzez hitz zer esaten zuen jakitea

Autopsiaren faltan bi bide dauzakagu hark zer zioen jakiteko. Alde batetik 1976ko ekainaren 25ean Maite Maniort-ek Miguel Castells-i idatzi zion eskutitzean autopsiari buruz idatzitakoa daukagu (13). Bestetik autopsiak omen zioena daukagu

Maite Maniort-en eskutitzean autopsiako puntu hauek aipatzen dira:

1) Txirrita ez zela hankan (14) zeukan bala zauriarengatik hil: *“Bidaola n’a pu mourir de sa blessure. Il était blessé d’une balle au talon qui est ressortie, aucun hémmorrhagie n’a eu lieu. Les conclusions sont formelles: Bidaola n’a pu mourir de cette blessure”* (Bidaola no ha podido morir de su herida. Estaba herido de una bala en el talón con entrada y salida, no tuvo ninguna hemorragia. Las conclusiones son formales: Bidaola no ha podido morir de esta herida)

2) Txirritak hilabete inguru pasatu zituela basoan hilda eta intsektu eta animaliek janda zegoela gorpua: *“Le corps ayant séjourné près d’un mois (15) dans l’eau, sur le dos, le ventre était hors de l’eau complètement mangé par les insectes et les bêtes”* (El cuerpo estuvo cerca de un mes en el agua de espaldas; el vientre estaba fuera del agua completamente comido por los insectos y los animales) (16)

3) Hil baino lehen zerbait arina jan zuela: *“Avant la mort, il venait de prendre un repas léger”* (Antes de su muerte acababa de comer algo ligero) (17)

4) Il ne portait aucune trace d’ecchymoses sur les cuisses (“No tenía ninguna marca de moretón en los piernas / muslos)

Horiek dira Maite Maniort-en eskutitzean aipatzen diren puntuak. Autopsian aipatzen omen ziren puntuak, berriz, hauek dira:

1) Eskutitzean zerbait jan zuela aipatzen da, baina ez da besterik zehazten, baina esaten da autopsian jartzen zuela tiroketa izan eta hiru egunetara jan zuela

2) Tiroketa izan eta hamar egunetara hil zela ere jartzen omen zuen autopsiak

Autopsia eskuetan izanez gero datu horiek agertzen ziren edo ez jakingo genuke. Bestela autopsia irakurri zuten eta datu horiek agertzen zirela baieztatu dezakeen jendearen testigantza lortu beharko litzateke

Argitu gabe geratzen da ea tortura zantzurik ba ote zeukan. Estrangulatu ote zuten jakiterik ez dagoela dio Maite Maniort-en eskutitzak: “Il n’a pas été possible de savoir s’il avait été étranglé” (No es posible saber si fue estrangulado) Hanketan / izterretan moratoirik ez zeukala ere jartzen du (*Il ne portait aucune trace d’ecchymoses sur les cuisses*). Baina datu hori ez da nahikoa torturarik ez zela izan baieztatzeko. Ez dakigu autopsian puntu hau argitu lezakeen beste azterketarik egin ote zen

Autopsiaz gain, gorpua non eta nola agertu zen azaltzen duen informe polizialen bat ere egin beharko zuten jendarmeeek Txirritaren gorpua agertu zen egunean. Maite Maniort-ek M.Castells-i bidalitako gutuneko zati batzuk informe polizial batean agertu litezkeen datuak dirudite. Gorpua agertu zeneko lekuari buruzko datuak agertzen dira bertan: “*On a retrouvé son corps au fond d’un ravin profond, dans l’eau, sa chaussure droite enlevée, le fusil étant posé contre un arbre au dessus du torrent. Il avait fait au moins 1 km en territoire français, dans des pentes très fortes* (Se encontró su cuerpo en el fondo de un barranco, en el agua, no llevaba la bota derecha, el fusil estaba colocado contra un árbol, encima del torrente. Había hecho al menos 1 Km en territorio francés, entre pendientes muy fuertes)

Posible da juezak informe polizialeatik hartu izana datu hauek. Kontua da informe polizialean gorpuaren lokalizazioaz gain aztertu zitezkeela gauza gehiago ere. Aztertu zitekeen, adibidez, gorpua agertu zen inguruan beste pertsonaren batzuk ibili izanaren aztarnarik ba al zegoen. Beste aztarnarik ez bazegoen Txirrita bere kabuz heldu zela esan nahiko luke. Beste aztarna batzuk bazeuden berriz, horrek esan nahiko luke Txirritaren gorpua beste norbaitzuek eraman zutela leku hartara. 1976ko ekainaren 1eko La Voz de España egunkariaren arabera Senpereko jendarmeeek aurkitu zuten Txirritaren gorpua (18). Hala izan bazen litekeena da Senpereko jendarmeeek gorpua aurkitu zuten egunari buruzko informe polizialen bat egin izana eta han datu gehiago egotea, baina ez dugu halako informerik lortzeko modurik izan

## ■ Bertsio desberdinak

Iñaki atxilotu egin zuten. Txirrita maiatzaren 28 aldera Sarako basoetan hilda agertu zen. Bitartean zer gertatu zen ? Non egon zen ? Basoan galduta egon al zen ? Bahitu egin ote zuten ? (19)

Hiru dira Txirritaren heriotzari buruzko bertsioak. Lehendabiziko bertsioak, bertsio ofizialak, esaten du bere buruaz beste egin zuela. Bigarrenak dio, hau ere ofizialtzat hartu liteke (20), Sarako basoetan hil zen Guardia Zibilei ihes egitea lortu ondoren. Hirugarren bertsioaren arabera zaurituta geratu ondoren Guardia Zibilek atxilotu, bahitu, torturatu, hil eta ondoren Sarako basoetara eraman zuten gorpua

Lehen biak bertsio ofizialak dira. Hirugarrena herriaren bertsioa da. Ikus dezagun xehetasun gehiagorekin zer dioen bertsio bakoitzak

**1) Lehenengo bertsioaren arabera,** bere buruaz beste egin zuen Txirritak

Nota ofizial batetan zabaldu zuten Guardia Zibilek Txirritaren suizidioaren bertsioa. “Euskadi ta askatasuna” liburuan 4. tomoko 87. orrialdean honela azaltzen da:

“Aunque el informe forense diría que Txirrita presentaba un único orificio de bala en la pierna ... la Guardia Civil, en nota oficial, apuntó que el militante se había suicidado. Esta versión sería ratificada catorce años después por José Luis Corcuera, ministro del Interior en uno de los gobiernos del PSOE ...” (azpimarraketa gurea da)

Suizidioaren bertsioaren kontrako argumenturik sendoenetakoa hankan zeukan bala-zauri bakarrarena da. Nola egingo zuen bere buruaz beste hankan tiro bakar bat emanda ? Baina hala egitea posible izango balitz ere ez zen izan hori Txirritaren kasua, autopsiak garbi esaten baitu ez zela hankako bala-zauriaren ondorioz hil (*Les conclusions sont formelles: Bidaola n´a pu mourir de cette blessure*)

Internet-eko 2014ko “Gogoan hartzeko izenak” orrialdeak ere hankako zauriaz dihardu:

“En la versión de la Guardia Civil se habla de suicidio a pesar de que la autopsia que se realizó en Sara confirmó que el cuerpo presentaba un solo orificio de bala en el tobillo un lugar poco apropiado para darse un tiro mortal”

Borda eta Talak ihesean zihoazela ikusi zuten Guardia Zibilen fusiletatik irten zela tiro hura. Autopisan bala-zauri bakarra aipatzen da, hankakoa. Bala hura Guardia Zibilek tiratu bazioten ez zion Txirritak bere buruari jaurti eta orduan zaila da ulertzea nola egin zuen bere buruaz beste

Kontua da, ordea, seguraski, bertsio ofizialaren arabera bala-zauri bat baino gehiago izan zirela. Honela zioen 1976ko ekainaren 1eko “La Voz de España” egunkariak:

“Hallazgo del cadáver de Bidaola Achega, acribillado a balazos; La gendarmería de Saint-Pée-sur-Nivelle (Pirineos Atlánticos) descubrió el viernes pasado el cadáver de un refugiado perteneciente a la organización terrorista ETA. Su cuerpo acribillado a balazos, ha sido hallado en una zona montañosa, en las proximidades de la localidad francesa de Sare, a dos kilómetros de la frontera franco-española ... En el mismo lugar ha sido encontrado una pistola automática, dos cargadores, así como una cartuchera conteniendo varios proyectiles de los usados comúnmente para la práctica de caza mayor. Cerca del cadáver también ha sido hallado un fusil de cañón cortado ... Bidaola Achega presentaba tres heridas producidas por arma de fuego. El primer balazo lo tenía incrustada en el bajo vientre; el segundo, en el brazo, con orificio de entrada y salida, y el tercero, en la cabeza”

Bordak komentatu digu ezinezkoa dela Txirritak fusil bat edukitzea. Notiziak hala dio: *“cerca del cadáver también ha sido hallado un fusil de cañón cortado”* (21). Euren zeuzkaten arma bakarrak honakoak zirela zehaztu digu: Parabellum Firebird 9 mm pistolak, Remington eskopetak eta eskuko bonbak

Txirritak bere buruari hiru tiro jo izana ez da oso sinesgarria. Agian ulertarazi nahi dena da, bi balazo tiroketan jaso zituela, zaurituta iritsi zela Sarako basoetara eta han berak bere burua hil zuela burura jaurtitako tiroarekin. Posible da hau izatea Guardia Zibilaren bertsio ofiziala eta La Voz de Españak bertatik hartu izana informazioa, baina ez dugu bertsio ofiziala lortzerik izan eta ezin jakin

1976ko maiatzaren 31ko Donostiako Hoja del lunes egunkariak ere hiru tiro aipatzen zituen eta buruan zeukanaz honakoa zioen:

“Las características de la última herida permiten pensar que el herido acabara con sus sufrimientos por él mismo, o que sus compañeros de fuga pusieran fin a los mismos antes de abandonarle allí, dándose cuenta de la gravedad de las heridas recibidas en el alto de Echalar”

Ez dakigu La hoja del lunes eta La Voz de Españak diotena Guardia Zibilak zabaldu zuen informazioa izan zen. Hala izan bazen kontraesanetan aritu ziren Guardia Zibilak. Izan ere, bi egunkari horietan ez zuten hankako zauririk aipatzen, baina beste egunkari batzuetan ihesi ziohazenetako batek hankan zaurituta egotearen itxura zeukala aipatzen zuten Guardia Zibilek eurek. 1976ko maiatzaren 27ko ABC-k honela zioen:

“Fuentes de la Guardia Civil nos han informado ... al serles dada la voz de alto respondieron con fuego de pistola y escopetas, por lo que los componentes de la citada patrulla respondieron haciendo uso de sus armas, viendo cómo uno de los individuos caía al suelo mientras los otros tres se daban a la fuga amparados en la vegetación y en la elevación del terreno. Lograron cruzar la raya fronteriza, y se ob-

servó que uno de ellos corría con dificultad, dando sensación de ir herido en una pierna" (azpimarraketa gurea da)

**2) Bigarren bertsioaren arabera,** Txirritak, tiroketan zauritu ondoren muga zeharkatzea lortu zuen eta ondoren Sarako lurrei dagokien basoan hil zen. Bertan egon zen hilda hilabete barru bere gorpua aurkitu zuten arte

Bertsio hau bitan banatzen da. Lehenengoa Guardia Zibilaren bertsioa da eta honen arabera tiroketan jasotako zaurien ondorioz hil zen Txirrita. Bigarrena Maite Maniortek Miguel Castells-i bidali zion eskutitzean agertzen da eta honen arabera ere Txirritak muga pasatzea lortu zuen, baina ez zen hil bala zauriengatik, baizik eta agotamentuaren, beldurraren, eta ondoezaren ondorioz

Lehenengo Guardia Zibilen bertsioa aztertuko dugu eta gero Maite Maniortek Miguel Castells-i bidali zion eskutitzean agertzen dena.

Guardia Zibilen hitzak aipatuaz honakoa dio 1976ko maiatzaren 27ko El Pais egunkariak :

"Antes, la Guardia Civil había observado cómo de los tres individuos que lograron huir, uno de ellos corría con dificultad, dando la sensación de ir herido en una pierna. Las mismas fuentes añaden que «no puede descartarse la hipótesis de que a consecuencia de estas heridas falleciera en Francia y su cadáver haya sido escondido o enterrado secretamente por sus compañeros, para evitar la intervención de las autoridades francesas ante prueba tan evidente de estas actividades terroristas que violan la condición de refugiados políticos. La información señala que las fuerzas de la Guardia Civil practicaron un minucioso reconocimiento de la zona, por si el individuo que parecía herido se hubiese quedado escondido, pero el resultado fue negativo" (azpimarraketa gurea da)

Etakideek gorpua gorde eta lurperatzearenak ez dauka inolako oinarririk eta gutxiago sinesgarritasunik, baina bestela, orokorrean, tiroketan jasotako zaurien eraginez basoan hil izanaren bertsioa suizidioarena baino sinesgarriagoa da. Bertsio honen bidez ulertarazten zaigu Txirritak, zaurituta egon arren, muga zeharkatzea lortu zuela, baina behin hori lortu ondoren, ez zela aurrera egiteko kapaza izan eta bere zauriek eskatzen zuten laguntzaren faltan basoan hil zela, hilabete geroago bere gorpua aurkitu zutelarik. Suizidioaren bertsioa baino sinesgarriagoa izan ahulune nabarmenak dauzka bertsio honek. Aztertu ditzagun ahulune batzuk:

1) Autopsiak hankan jasotako bala bakarra aipatzen du eta Txirrita ez zela bala-zauri horregatik hil esaten du (*Les conclusions sont formelles: Bidaola n'a pu mourir de cette blessure*). Hankako zaurian hemorragiarik ez zuela ere aipatzen da: (*aucun hé-morragie n'a eu lieu*). Bertsioak berriz honakoa dio: "*no puede descartarse la hipótesis de que a consecuencia de estas heridas falleciera en Francia*"

2) Bertsio honek dioen bezala muga zeharkatu eta Sarako lurri dagokien basoetan barneratu bazen, azkar lortu zuen muga zeharkatzea. Baina muga ti-ta batean pasatu bazuen, han aurkituko zituen Borda eta Tala bere zain (22). Aldiz, muga segundu gutxiren buruan pasatu izan ez balu berehala atzemango zuten atzetik korrika zetozkion Guardia Zibilek

3) Bordaren eta Iñakiren testigantzek kolokan jartzen dute Txirritak muga pasatu izanaren bertsioa. Aurrez kontatu dugun bezala Bordak muga zeharkatzean burua atzerantz bueltatu eta Guardia Zibilak ikusi zituen Txirrita zauritu zuten inguruan hura zauritu eta denbora oso gutxi barru. Iñakik berriz, lurlean zaurituta zegoela Txirrita ikusi zuen, besoak altxatuta eta bospasei Guardia Zibilez inguratuta

4) Tiroketaren ondorengo egunetan bai etakideek eta baita Txirritaren familiakoek eta lagunek ere bilaketa lan ugari egin zituzten inguru haietan. Inork ez zuen Txirritaren arrasto txikienik ere aurkitu

Aurrez aipatu dugun El Pais egunkariko notiziaren arabera Guardia Zibilek ere miatu zituzten inguruak: *“las fuerzas de la Guardia Civil practicaron un minucioso reconocimiento de la zona”*

Bilaketa lan horiek, ordea, egin bazituzten hegoaldeko lurretan egingo zituzten, aurrez esan dugun bezala, ezin baitzuten mugarik pasatu (23)

Erakundeko kideek, familiakoek eta lagunek bilaketa lan zorrotzak burutu zituzten, baina inork ez zuen Txirritaren arrastorik aurkitu

Internet-eko 2014ko “Gogoan hartzeko izenak” orrialdeak dioen gauza bat garrantzitsua iruditzen zaigu. Honakoa dio:

*“La familia, junto con los compañeros del Club de Montaña Oargi del que era directivo el desaparecido iniciaron labores de rastreo por toda la comarca. La zona donde posteriormente un contrabandista, el 28 de mayo, encontró el cuerpo había sido peinada más de una vez, por lo cual a los allegados les sorprendió el hallazgo en ese lugar”* (azpimarraketa gurea da)

Gorpua agertu zen leku zehatza ezagutzen dute familiakoek. Gorpua agertu zen egunean bertara joateko aukera izan zuten Txirritaren bi anaiak eta horri esker badakigu zehazki non agertu zen. Interesgarria litzateke norbaitek gorpua agertu zen leku zehatz hartan bilaketa lanak egiten ibili izanaren testigantza ematea

5) Autopsiak omen zioenaren arabera Txirritak tiroketa izan eta hiru egunetara zerbait jan zuen (Maite Maniort-en eskutitzean honakoa dio: *“Avant la mort, il venait de prendre un repas léger”*). Talak eta Bordak diotenez, ordea, Saratik abiatu zirenean ez zuten janaririk hartu ibilaldi hartarako. Gau hartan zerbait jan omen zuten, baina janaririk ez zuten hartu. Bordari galdetu diogu aber zergatik ez zu-

ten jakirik hartu eta esan digu bi zirela jakirik ez hartzeko arrazoiak. Bata zen ez zutela espero halako ezustekorik izatea. Orduan, gauzak ondo joanda, laster iritsiko ziren Donostiara eta ez zuten motxilan janaria eraman beharrik izango. Beste arrazoia pisuarena da. Hamabost kilo inguruko karga omen zeraman bakoitzak. Motxilan balak eta arropa. Pistola eta eskuko bonbak gerrian eta eskope-ta, berriz, eskuan. Eta karga hori aldean eramanda pisu gehiagorik ez hartzen saiatzen omen ziren beharrezkoa ez bazen

Janaririk gabe abiatu baziren, zaila da imajinatzea, Txirritak ihes egitea lortu bazuen, nondik atera zuen bere gorpuan agertu zen alimentu hori. Pentsatzen badugu Guardia Zibilen eskuetan zegoela, orduan erraz azaltzen da jakien presentzia. Beren eskuetan daukate, eta hiru egun pasatu direnean, janaria ematen diote. Baina bertsio ofizialak dioen bezala, basoan zaurituta bazegoen, nola lortu zuen elikatzea ? Pentsatu behar al dugu Tala eta Bordak ez zeukatela jakirik, baina berak, hauek jakin gabe, zerbait hartu zuela jateko ? Eta orduan zergatik itxaron zituen hiru egun jan gabe, ez al zuen goserik izan ordura arte ? Edo inkontziente egon zen hiru egunez eta esnatu zenean zerbait jan zuen ? Edo pentsatu behar ote dugu berak ez zeukalako jakirik, baina, adibidez, baserriren batean eman ziotela ? Baina ze baserritan, ordea ? Gorpua baserriguneetatik urruti agertu zen. Baserriguneetara iristea lortu bazuen bestalde, ez al zien baserritarrei laguntza eskatuko ? Norbaitek, basoan aurkitu eta emango al zion janaria ? Baina galdera bera datorkigu hemen: norbaitek janaria eman bazion ez al zion laguntza eskainiko ?

Iñakik dio, dena dela, posible dela galletaren batzuk eta membrillo pixkaren bat eraman izana

Ikusi ditugu Guardia Zibilaren bigarren bertsioaren ahuluneak. Orain azter dezagun Maite Maniort-en gutunean agertzen den bigarren bertsioaren aldaera. Honen arabera Txirritak, zaurituta egon arren, ihes egitea eta muga pasatzea lortu zuen, baina ez zen bala-zauriaren ondorioz hil, baizik eta agotamentuaren, beldurraren eta ondoezaren ondorioz hil zen. Eskutitzean Txirritaren heriotzaren inguruko hipotesi batzuk agertzen dira. Hipotesi hauek ez dakigu autopsian agertzen ziren, informez polizialean agertzen ziren edo juezak egin ote zituen. Aipatzen dituen hipotesietako bat: *“Bidaola est mort d’épuisement et de peur”* (Bidaola ha muerto de agotamiento y de miedo). Beste hipotesi bat ere aipatzen du: *“Bidaola a pu glisser sur une pente et tombé, assommé dans la ruisseau”* (Bidaola pudo haber resbalado en una pendiente y caerse, quedándose inconsciente en el arroyo). Lehen hipotesia aipatzen da probableena bezala: *“L’hypothèse la plus vraisemblable paraît être la mort d’épuisement due à un malaise”* (El hipótesis más creíble podría ser la muerte por agotamiento debido a un malestar). Zertan oinarritzen da, ordea, hipotesi hori ? Zeintzuk dira agotamentuaren eta beldurraren ondorioz hil izanaren hipotesia osatzeko eskuratu zituen datuak ? (Autopsia egiterakoan non antzeman zizkion beldurraren

zantzuak gorpuari, belarri ostean ? Zerk pentsarazi zion aldapan labandu zela ? Ezer-tan oinarritzen ez diren hipotesiak dirudite

**Hirugarren bertsioaren arabera** Txirrita, zauritu zutenean, ezin aurrera eginda geratu zen eta orduan atzetik tiroka zetorkion Guardia Zibil taldea ondoratu zitzaion eta atxilotu egin zuten. Ondoren komisaldegira edo auskalo nora eraman eta han galdekatu, torturatu, hil eta Sarako pago basoan utzi zuten gorpua. Ondoren ahulunez betetako bertsio ofizial “txapuzero” bat osatu zuten Estatuaren babesak eskaintzen zien erabateko inpunitatearekin (24). Dena dela, zuzenean bertsio ofizialak zer zioen jakiterik ez dugu lortu

Tiroketaren ondorengo egunetan nahas mahasa zen nagusi. *Inork ezin jakin non zegoen Txirrita. Baina denok dakigu non zegoen*, dio Bordak. Guardia Zibilen eskuetan egon zela uste du berak. Uste berekoa da Tala, eta baita Txirritaren familia ere. Hala dio Internet-eko 2014ko “Gogoan hartzeko izenak” orrialdeak:

“La familia cree que fue detenido, torturado y asesinado”.

“Euskadi ta askatasuna” liburuko 4. tomoko 87. orrialdean ETApM-ren ustea agertzen da:

“ETApM afirmó que Txirrita había muerto en el cuartel de la Guardia Civil de Iruñea y su cuerpo depositado con posterioridad en el lugar donde fue encontrado”

ETApM zeozertan oinarrituko zen baieztapen hori egitera iristeko, baina inon ezin izan dugu aurkitu Txirrita Iruñean eduki zutela nola jakin zuten azaltzen duen informaziorik (25). Han edo hemen, komisaldegi batean edo bestean, edo komisaldegitik kanpoko beste edonon bada ere, behintzat kontua da hirugarren bertsio honen arabera Guardia Zibilen eskuetan egon zela Txirrita tiroketaren egunetik basoan bere gorpua utzi zuten egunera arte

Hirugarren bertsioaren aldeko argumentu garrantzitsuenetakoak Bordaren eta Iñakiren testigantzak dira. Bordak Txirrita zauritu zuten inguruan Guardia Zibilak ikusi zituen eta Iñakik bospasei Guardia Zibilez inguratuta ikusi zuen Txirrita

Horrez gain, zeharkako argumentu bat litzateke bertsio ofizialaren konsistentziarik eza. Suizidioarenak ez dauka sinesgarritasunik. Eta Guardia Zibilei ihes egin eta muga pasatu ondoren hil izanaren bertsioa, aurrez azaldu dugun bezala, ahulunez josita dago. Bi bertsio horien ukazioak hirugarren bertsioa indartzeko argumentu bihurtzen dira

ETApM-ak gorpua polizia espainiarrak eraman zuela Sarako basora aipatzen omen zen: “ETApM afirmó que ... su cuerpo depositado con posterioridad en el lugar donde fue encontrado”. Maite Maniort-ek M. Castells-i bidali zion gutunean polizia espainiarrak gorpua hara eraman zezakeenaren bertsioa albo batera utzi behar

zela aipatzen zen: “Il semble exclu que la police espagnole l’ait ramené à cet endroit: en effet c’est vraiment très profondément en territoire français à 50 m de la route menant au col de Lizarrieta. Pour aller à pied avec un cadavre, il faut passer 2 ravins très profonds et faire au moins 1 km à pied” (Parece excluido que la policía española le haya llevado a ese lugar: en efecto está verdaderamente muy dentro en territorio francés, a 50 m de la carretera que conduce al puerto de Lizarrieta. Para ir andando con un cadáver, hay que pasar dos barrancos muy profundos y hacer al menos 1 km a pie). Bertan dioenaren arabera Txirritaren gorpua polizia espainolak garraiatzearen posibilitatea baztertzearen arrazoia honakoa da: kilometro batez oinez garraiatu beharko zuten gorpua bide malkartsuetan zehar eta hori gehiegi litzateke. Mugatik gorpua agertu zen lekura kilometro bat zegoen eskutitzaren arabera. Baina zergatik suposatzen da oinez garraiatu zutela gorpua ? Zergatik ez da kontuan hartzen kotxez muga pasatzearen aukera ? Polizia espainiarrak oinez pasa lezake muga eta kotxez ez ? Muga kotxez pasa bazuten 50 metrotan zehar garraiatuko zuten oinez gorpua eta ez kilometro oso batean zehar. Ez dauka oinarri gehiegirik eskutitzean gorpua espainiar poliziak garraiatu izana baztertzeko erabiltzen den argumentazioak

Txirritaren anai-arrebek kontatu digutenak ere hirugarren bertsioaren alde egiten du. Tiroketa goizeko zortziak eta laurden aldera izan zen eta egun berean, Txirrita non zegoen inork ez zekielerik, eguerdiko hamabiak aldera, Guardia Zibilak bere familiaren etxea miaztera joan omen ziren (26)

## ■ Argitu gabeko kasua

Denborak aurrera etengabian eta Txirritaren kasuak argitu gabe jarraitzen du berrogei urte geroago. Ixabel Etxeberriak bere artikuluan (Gara, 2014) zioen bezala:

“Norbaitek hartuko al du hilketa horren erantzukizuna? Kasu hori hor dago. Argitu gabea. Beste bat”

Bordak Guardia Zibilak ikusi zituen Txirrita zauritu zen leku inguruan. Iñakik, berriaz, besoak altxatuta bospasei Guardia Zibilez inguratuta ikusi zuen. Handik aurrerakoa Jainkoak bakarrik dakien gauza da. Misteriozko ate bat da eta bertako giltzarik oraindik ez da agertu (27)

Txirrita basoan galduta bakarrik ibili bazen inork ez daki zer gertatu zen egun haietan. Hala izan ez bazen txapelokerren batek edo bestek (28) jakingo dute egun haietan gertatu zenaren egia. Baina egia hori neuronetan itsatsita izango dute preso, mingainagandik urrun. Hain urrun !

Txosten honetan kasuari buruzko ahalik eta informazio gehien batzen, ordenatzen eta aztertzen saiatu gara. Ondorioak ateratzea irakurlearen esku utziko dugu

## Oharrak

**1.** Datu desberdinak agertzen dira tiroketaren egunaren inguruan. “Giovanni Giacomucci”-ren “ETAprm el otro camino” liburuan apirilaren 22an gertatu zela jartzen du. “Ricardo Zabalza”-ren “Voluntarios, semillas de libertad” liburuan, “Gernikako seme-alabak, Euskal Herria 1960-2010” liburuan eta “Euskadi ta askatasuna” liburuko 4. tomoan apirilaren 24a aipatzen da. “Deklaratu gabeko gerra; estatu-terrorismoa Euskal Herrian” liburuan eta El Diario Vasco, La Voz de España, Unidad, Iruñeko Hojas del Lunes, Donostiako Hojas del Lunes, Diario de Navarra, El País eta ABC egunkarietan apirilaren 25ean izan zela tiroketa agertzen da. Apirilaren 25a hartuko dugu kontuan txosten honetan

**2.** Borda: Gregorio Garitaonandia Arrillaga, San Prudentzion (Bergaran) jaioa, baina bizitza gehiena Oñatin egin duena; Tala: Eulogio Talavera Merino, Ugao Miraballes-ekoa; Txirrita: Jose Bernardo Bidaola Atxega, Lizartzan jaioa eta hamabi urte inguru zeuzkanean familiarekin Tolosara bizitzera joan zena; Iñaki: Ignacio Hernandez Lasa, Ibarra adina. 1976an, hau zen bakoitzaren adina: Talak 22 urte zeuzkan, Bordak eta Txirritak 23 urte eta Iñakik 18 urte

**3.** Datu desberdinak agertzen dira Txirritaren gorpua agerpenaren inguruan. “Ricardo Zabalza”-ren “Voluntarios, semillas de libertad” liburuan lau egun geroago agertu zela jartzen du. Euskadi ta askatasuna” liburuko 4. tomoan, “Deklaratu gabeko gerra; estatu-terrorismoa Euskal Herrian” liburuan, “Gernikako seme-alabak, Euskal Herria 1960-2010” liburuan, El País, ABC, La Voz de España eta Donostiako Hojas de Lunes egunkarietan maiatzaren 28an agertu zela aipatzen da. Maiatzaren 28a hartuko dugu kontuan txosten honetan

**4.** Garai hartan ihesaldi bat prestatzen ari ziren Martuteneko kartzelako presoak. Barrutik zuloa egiten hasiak ziren eta Borda, Tala eta Txirritaren lana kartzela kanpotik barrurantz beste zulo bat egitea izango zen ihesaldia errazte aldera. Euren tiroketa izan ondoren beste talde bat hasi zen Martuteneko ihesaldian laguntzen, baina hauek ere ez zuten zorte onik izan. 1976ko maiatzean (Lizarrietan tiroketa gertatu zenetik egun gubxitara) tiroketa bat izan zen Martuteneko kartzelaren inguruetan ihesaldian laguntzen ari zirenen eta Guardia Zibileen artean. Hala jartzen zuen orduko El Diario Vasco egunkariak:

“El tiroteo se produjo cuando la patrulla de la Guardia Civil detectó la presencia de tres o cuatro individuos en el arbolado cercano a la parte posterior de la prisión que huyeron. Se especula con la posibilidad de que estos desconocidos tengan que ver con los dos pozos descubiertos por la Guardia Civil en el mismo lugar y desde los que queda claro que se trataba de construir una galería subterránea hasta la prisión para provocar una fuga de reclusos ... fueron descubiertos dos pozos, uno al parecer desechado (por la lejanía con la Prisión) y el segundo a unos 200 metros de la cárcel, junto a unos cañaverales, disimulado con una tapa artificial que a su vez estaba recubierta por unos arbustos. En este pozo, de dos metros de profundidad y uno de diámetro, se encontraron alimentos, bombas de achique, una tienda de campaña, picos y palas, con los que se supone se iba a iniciar la excavación de un túnel subterráneo que penetrara hasta el interior de la cárcel. Por medio del túnel se comunicarían con el colector principal de la prisión, facilitando así el intento de fuga”

Saratik Etxalarrerantz abiatu zirenean Bordak bakarrik zekien nora eta zertara zihoazen. Gero, ordea, Iñaki mugalariak bidetan hanka zuloan sartu eta aurrera jarraitu edo ez erabakitzerakoan Bordak guztiei kontatu omen zien nora eta zertara zihoazen, hala erabakia hobeto hartuko zutelakoan, hala dio Iñakik. Erakundeak bazekien Iñaki Guardia Zibileen eskuetan egon zela eta Txirrita ere hala egon zitekeela. Orduan erakundea jakinean bazegoen Iñaki eta Txirritak bazekitela Martutenera ihesaldian laguntzera zihoazela, pentsatzekoa da ez zutela beste talde bat bidaliko lan bera burutzera. Agian Borda eta Talari ahaztu egin zitzairen erakundeari abisatzea Txirrita eta Iñakik informazio hori zutela

Iñakiri ez zioten ezer atera ospitalean, bere egoerarengatik ezin izan baitzioten “interrogatorio on” bat egin. Txirritari halako informaziorik atera ote zioten ezin dugu jakin

Beste aukera bat da ez batari eta ez besteari halakorik atera ez izana eta Guardia Zibilek kartzela inguruak zaintzen hasi eta norbaitzuk ihesaldian laguntzen ari zirela konturatu eta beraiekin tiroketan hasi izana

**5.** Xavier Vinader-en “Operación Lobo, memorias de un infiltrado en ETA” liburuko 110. orrialdean ere, beste istorio batzuk kontatzen ari delarik, aipatzen da hauek ibili ziren lekuen erreferentzia:

“Fueron hasta Sare, donde estaba situado un puesto fronterizo que, en plena montaña, comunicaba en el otro lado con Echalar. Vieron que se podía llegar fácilmente por carretera y después pasar la “muga” por las lomas, donde apenas había vigilancia. Al lugar se le conocía popularmente como las Palomeras de Echalar, porque los aficionados a la caza de estas aves con redes y paletas solían frecuentarlo. Comentaban que aunque aquel paso no había sido muy empleado la zona francesa no tenía ninguna vigilancia, excepto el puesto cerca de Lehenbiscaye, que se podía eludir fácilmente utilizando un sinfín de pistas secundarias. Las carreteras de la parte española tenían más riesgo y estaban bastante más controladas. Pero el recorrido entre el Col de Lizarreta y los puentes de Yanci, Lesaka, Echalar o Berrizaún se hacía siempre a través del monte”. Vinaderen liburuan deskribatzen den inguru horietan ibili ziren Borda, Tala, Txirrita eta Iñaki

**6.** Iruñeako Hoja de Lunes egunkariak, 1976ko apirilaren 26an, honakoa idatzi zuen hizki handitan: “Choque con la ETA en Echalar”

**7.** Posible da jendarmek jarraipena egin izana eta Guardia Zibilei taldea norantz zihoan abisatu izana, halako kolaboraziorik garai hartan izaten baldin bazen behintzat

Taldea gaueko 11etan irten zen Saratik eta datu hori agertu zen tiroketa izan eta egun gutxitara 1976ko apirilaren 29ko La Voz de España egunkarian:

“El comando, formado por cuatro individuos, había iniciado la marcha de aproximación a España desde la localidad francesa de Sare, sobre las 11 de la noche”

Borda eta Talak diote baietz, gutxi gorabehera ordu horretan irten zirela. Baina nola zuen egunkari batek halako informaziorik ? Guardia Zibilak zabaldu ote zuen datu hori ? Eta nola zekien Guardia Zibilak ? Jendarmek pasatu ote zioten informazioa ? Posible da informazioa Txirritari atera izana. Iñakik dio berari ez ziela halako daturik eman

**8.** Talaren emaztea da Ixabel Etxeberria. Aldian behin artikulua idazten ditu Gara egunkarian. Artikulu hau, “Herrira itzultzen” izenburuarekin 2014ko martxoaren 31an argitaratu zen

**9.** Guardia Zibilek Txirrita, Tala eta Iñaki identifikatu zituzten. Borda identifikatzerik ez zuten lortu. 1976ko apirilaren 30eko ABC-k honela zioen:

“Ha sido dada a conocer la identidad de los tres miembros del comando de ETA que en la madrugada del pasado domingo mantuvo un tiroteo con la Guardia Civil cuando intentaba pasar a Navarra desde Francia, camuflados sus componentes con unos impermeables verdes y unas gorras se cree que para simular en su aspecto exterior que eran efectivos de la Benemérita” (azpimarraketa gurea da)

Iñaki atxilotu zutenean identifikatuko zuten. Txirritak Guardia Zibilen arabera kartera galdu zuen Lizarrietako zelaian eta horregatik identifikatu zuten (aurrera aztertuko dugu puntu hau). Talak bera nola identifikatu zuten kontatu digu. Iparraldean “carta de refugiado” delakoa erabiltzen zuten. Talak kontatu digu berak, deskuidatuta, hegoalderantz irten ziren aldi hartan “carta de refugiado” hori etxean utzi ordez, berarekin hartu zuela. Konturatu zenean Iñaki mugalariari eman omen zion, hura muga pasatzen lagundu ondoren berriz ere iparraldera itzuli behar baitzen. Mugalaria, ordea, kontatu dugun bezala, Guardia Zibilen eskuetan erori zen. Guardia Zibilek horrela identifikatuko zuten Tala

**10.** Garai hartan ohikoa omen zen anfetamien erabilera. Farmazietan saltzen zituzten eta jendeak, kafea bezala, ikasketetarako erabiltzen zituen, esna mantentzeko

**11.** 1976ko apirilaren 27ko Diario de Navarra egunkariak honakoa idatzi zuen:

“El herido, una vez recogido del suelo, fue llevado al edificio de la aduana, a escasos metros del lugar del tiroteo, donde la Guardia Civil le prestó la primera ayuda. A continuación fue avisado el médico titular de Echalar, don Javier Bayona, que le hizo un reconocimiento y una cura de urgencia, antes de que una ambulancia lo trasladara al Hospital de San Sebastián. Pese a la gravedad de las heridas, en pierna, mano y antebrazo, Ignacio Hernandez, según nos comunican, tomó café con leche antes de la llegada de la ambulancia”

Egunkari horretan jarri zutenari buruz galdetu diogu Iñakiri. Ea kafesnerik eman zioten. “*Bai, eta txuleta bat patatekin ere bai !*” erantzun digu eta ondoren esan digu hor jartzen duena gezurra dela. Zelaian eduki zutela denbora guztian. Ez zutela “al edificio de la aduana” eraman eta ez ziotela kafesnerik eman. Medikua agertu omen zen, baina ez omen zion “cura” handirik egin. Panorama ikusita, Iñakik berak Guardia Zibil bati es-

katu behar izan omen zion laguntza: “*hazme un torniquete*”, eta Guardia Zibilak zinturoia hartuta tornike-tea egin omen zion

Tiroketa zortzirak eta erdiak aldera bukatu bazen (hogei minutu inguru iraun zituela kontuan hartuz), hiruzpalau ordu geratzen dira tiroketatik Donsotiako ospitalera eraman zuten arte. 1976ko apirilaren 27ko El Diario Vasco-ren arabera eguerdiko ordubatak laurden gutxitan iritsi ziren Donostiako ospitalera:

“... a la una menos cuarto de la tarde de ayer ingresó en el Hospital Provincial de San Sebastián”

Tiroketa izan zen lekutik Donostiako ospitalera eramateko lau ordu pasatzeak denbora gehiegi dirudi. Txirritarekin zerikusirik izan ote lezake denbora-luzapen horrek? Ezin jakin

Bestalde, Borda eta Apalak tiroketa izan zen ingurua miatu zuten eta zuten inor aurkitu (aurrerago azalduko dugu hau). Inakik dio hamabietan ospitalera bidean zihoala anbulantzia. Ez du gogoratzen ze erreferenziarengatik dakien hori. Posible da Guardia Zibilak Lizarrietatik joan eta denbora gutxira agertu izana Borda eta Apala

Donostiako ospitalean parte mediko bat egin zioten eta honakoa zioen parte medikoak 1976ko apirilaren 27ko El Diario Vasco-n agertzen zenez:

“El parte médico del herido se resume en el siguiente: fractura de tibia y peroné izquierdos. Gran herida en la mano derecha con pérdida de sustancia carpo. Amputación traumática del dedo anular de la mano izquierda. Sedal con entrada y salida en el antebrazo izquierdo. Erosiones múltiples. Pronóstico grave”

Guztiak tiroketan jasotako balek eragindako zauriak dira. Hankan, besaurrean eta eskuan

Hiru hilabetez eduki zuten Donostiako ospitalean. Lehen bi hilabeteak inkomunikatuta. Logelan hiru Guardia Zibil izaten omen zituen eta logelatik kanpo beste lau. Horrez gain, behean egoten omen ziren beste batzuk. Bere egoerarengatik ezin izan ziotela “interrogatorio on” bat egin esaten du Inakik

Behin logelara eskopeta batekin agertu ziren Guardia Zibilak eta “esto es tuyo” esan omen zioten. Baina berak ez zuen eskopetarik eraman Lizarrietara, pistola bakarrik eraman zuen. Armak edukitzeaz akusatu nahiko zutela uste du eta horregatik joan zirela eskopetarekin. Txirritarena izan zitekeela dio Inakik, Bordaren eskopeta hondatuta baitzegoen eta berari erakutsi ziotena, berriz, egoera onean baitzegoen

**12.** Aurrez armak gorde zituztenean oinez zihoazen eta horrela arrisksua zen armekin ibiltzea. Oraingoan kotxez zihoazen eta arriskua txikiagoa zen. Horregatik jaso zituzten armak aurrez gordetako lekutik

**13.** Abokatu desberdinak ibili dira Txirritaren kasuan. Lehendabizi Miguel Castells-ek hartu zuen bere gain kasua. Ondoren Juan Maria Bandres-i pasatu zion honek. Gero familiak Iruñean denuntzia jarri behar zuten Patxi Zabaleta hartu zuten. Azkenik iparraldeko lanak egiten Maite Maniort ibili zen. Azken honek Miguel Castells-i eskutiz bat bidali zion 1976ko ekainaren 25ean (eskutitza osorik “Argazkiak eta agiriak” atalean dago), besteak beste autopsiaren berri emanez. Eskutitzaren hasieran honako hau dio:

“Si je ne vous ai pas écrit plus tôt pour vous tenir au courant c’est qu’il a fallu tout d’abord attendre les résultats de l’autopsie puis au vu de celle ci, nous nous sommes rendus sur place ce matin avec le Juge et le Procureur ...” (No os he escrito antes para informaros ya que hemos tenido que esperar los resultados de la autopsia, y hemos acudido al lugar esta mañana con el juez y con el procurador)

Zalantzan geratzen gara ea Maite, jueza eta prokuradorea gorpua agertu zen lekura (*sur place*) joan ziren goiz hartan (*ce matin*) edo autopsiaren emaitzak ikusteko elkartu ziren lekuren batean (*sur place*) goiz hartan (*ce matin*)

Eskutiza ekainaren 26koa da eta Txirritaren gorpua maiatzaren 28an agertu zen. Orduan gorpua agertu zen lekura bertara ez dakigu zertara gerturatu behar ziren. Gorpua agertu zen inguruaren detaileak ikustera agian? Baina horiek ez al zituzten eskuragai izango informe polizialean?

Txostenean jarri ditugun itzulpenei dagokionez, irakurlea ohartarazi nahi dugu gure frantses hizkuntzarekiko ezagutzaren mugetaz

**14.** “Talon” hitza agertzen da Maite Maniort-en eskutitzean. “Orpoa” esan nahi du euskaraz. Hau da bere esanahia: giza oinaren atzeko zatia, orkatilaren azpikoa. Internet-eko “Gogoan hartzeko izenak 2014” interneteko orrialdean “tobillo” hitza agertzen da

**15.** Apirilaren 25ean gorpua desagertu zenetik maiatzaren 28an agertu zen arte hilabete eta hiru egun dau-de. Maite Maniort-ek M.Castells-i bidali zion gutunean “prés d’un mois” aipatzen da, hau da, hilabete inguru. Gauzak argitzen lagunduko luke autopsian “hilabete inguru” hori zenbat izan zen zehazteak. Zenbat da “près

d'un mois", hogeita bost egun ? Hilabete eta hiru egun ? Hogeita bost egun bazeramatzan basoan horrek esan nahi du aurrez zortzi egunez beste nonbait egun zela. Hilabete eta hiru egun bazeramatzan berriz tiroketa egu-netik bertan egon zen. Ezin jakin puntu honi buruzko detaile gehiago agertzen ote ziren autopsian

**16.** 1976ko ekainaren 6an ETApM-ak Txirritaren desagerepenari buruzko agiri bat atera zuen (agiria osorik "Argazkiak eta agiriak" atalean dago) eta bertan ere Txirritaren gorpuren deskomposizio egoera aipatzen zen: "El 28 de Mayo (al cabo de un mes) aparecería el cuerpo de Txirrita abandonado cerca de la muga y en estado de descomposición"

**17.** Maite Maniort-ek M. Castells-i bidali zion gutunean dio Txirritak hil aurretik zerbait arina jan zuela: "*Avant la mort, il venait de prendre un repas léger*". Jarraian dio, ordea, "près de mois" (hilabete inguru) zeramatzala hilda eta bere sabela guztiz deseginda zeukala intsektuek eta animaliek janda zeukalako: "*le ventre était hors de l'eau complètement mangé par les insectes et les bêtes*". Kontua da ea posible den "hilabete inguru" lehenago jandako "zerbait arina" oraindik gorpuan detektagarri egotea. Ez al litzateke ordurako guztiz desegin-da egongo ? Gainera sabela guztiz janda bazuen nola aurkitu zuten janari arin horren arrastorik ?

Paco Etxeberría mediku forenseari galdetu diogu honi buruz eta honakoa idatzi digu: "Eso significa que el estómago estaba intacto. Aunque el abdomen estuviera afectado por la descomposición, algo vieron dentro del estómago. Normalmente se suele apreciar una papilla líquida, salvo que la digestión no se hubiera realizado ya que entonces se distinguen mejor los alimentos. Pero de nada sirve leer ese documento si no tenemos acceso al informe de autopsia completo"

**18.** 1976ko maiatzaren 31ko Donostiako Hojas del Lunes egunkariaren arabera, Senpereko jendarmek ez, baizik eta Mauleko jendarmek aurkitu zuten gorpua: "El cadáver ... fue hallado por la gendarmería de Mauleon"

"Deklaratu gabeko gerra; estatu-terrorismoa Euskal Herrian" liburuak 479. orrialdeak ere Txirritaren gorpua jendarmek aurkitu zutela jartzen du, nahiz eta ez zehaztu nongoak ziren:

"Bidaolaren gorpua, berriz, maiatzaren 28an aurkitu zuen Jendarmeriak Lapurdiko aldean"

Talak entzun izan duenaren arabera, berriz, ez zuten jendarmek aurkitu, ehiztari batek baizik

Gorpua jendarmek aurkitu bazuten nola aurkitu zuten ? Kasualitatez ala abisuren bat jaso zuten (Guardia Zibilena ?) bilaketari ekiteko. Aurrez ez al zuten bilaketa lanik burutu ? Pentsa liteke Txirritaren familiak denuntzia jarri zuenean hasi zirela bilaketa lanetan, baina ez dirudi hala izan zenik aurrez iparraldean ere desagerepenaren berri emana baitzuten. 1976ko maiatzaren 26ko La Vanguardia Española egunkarian honakoa jartzen zuen:

"Antes de presentar la denuncia, los familiares de José Bernardo Bidaola realizaron gestiones ante las autoridades francesas, pero sin que diesen resultado positivo, ya que no pudieron encontrarle en el país vecino, a donde en un principio se supuso que había huido tras haber intentado cruzar la frontera" (azpimarraketa gu-rea da)

**19.** Juan Maria Bandres-ek eskutitz bat idatzi zion Jose Manuel Otero-ri, Director General de Política Interior zenari. Honakoa idatzi zion: "Te puedes imaginar que los familiares y los amigos hacen mil cábalas sobre la situación del muchacho"

**20.** Bertsio ofiziala lortzerik ez dugu izan. Prentsaren bidez lortu dugu bertsio ofizialaren berri izatea. Dena dela, osorik zer zioen jakitea komeniko litzateke

**21.** Maite Maniort-ek M. Castells-i bidalitako eskutitzean ere aipatzen da fusil bat: "*Le fusil étant posé contre un arbre*" (El fusil estaba colocado contra un árbol). Baina Bordak esaten badu eurek ez zeukatela fusilik eta Txirritaren gorpuren ondoan fusil bat agertu bazen, nondik heldu zen fusil hura ? Nork eraman zuen leku hartara ? Dena dela, frantses-español hiztegian eskopeta eta fusila sinonimo bezala erabiltzen ikusi dugu. Ez dakiguna da Remington eskopeta bati fusil deitzea egokia litzatekeen edo ez. Hobeto begiratu beharko litzateke

**22.** Honakoa zioen ABC-k 1976ko ekainaren 1ean:

"La versión que parece probable es que Badiola resultó gravemente herido en el citado tiroteo y que acom-

pañado de otros dos compañeros del grupo, logró pasar la frontera, pero murió a poco de entrar en territorio francés, abandonando entonces el cadáver sus acompañantes” (azpimarraketa gurea da). Hori ez zen hala izan. Txirritak ez zuen Borda eta Talarengana iristerik lortu

**23.** Odiel egunkariak (Huelva-ko egunkaria) maiatzaren 5ean dioenagatik ere ulertzen da Guardia Zibilek ez zutela muga pasatu:

“Las fuerzas de la Guardia Civil practicaron un minucioso reconocimiento de toda la zona por si se hallase el herido escondido en algún almiar o zona de arbustos, con resultado negativo, pues por la proximidad de la raya fronteriza era muy fácil el paso a Francia, aunque fuese herido, al poder haber sido ayudado por sus otros dos compañeros” (azpimarraketa gurea da)

**24.** Lehenengo bertsioa nahikoa ahaztuta dago, guztiz sinestezina baita. Aldiz, bigarren bertsioak zutik dirau. El Diario Vasco egunkariak, adibidez, 2007an Txirrita Guardia Zibilekin izandako tiroketaren ondorioz hil zela hauspotzen jarraitzen zuen, bertsio ofiziala inoiz kuestionatu gabe, eta kasuaren inguruan dauden zalantzei eta galderei inolako tarterik eskaini gabe. Garai hartan “Txirrita plaza” zeukan izena Lizartzako plazak. Ezker abertzalea ilegalizatu zutenean PPko Regina Otaola jarri zuten alkatetzan. Honek izena aldatu zion plazari eta “Txirrita plaza” izatetik “Plaza de la libertad” izatera pasatu zen. Aldaketa horren berri ematera-koan El Diario Vasco-k argitaratu zuen notizian Txirrita tiroketa batean hil zela jartzen zuen, beste ezer aipatu gabe:

“El ayuntamiento de Lizartza acordó ayer modificar el nombre de la plaza del Gudari Txirrita, en homenaje al miembro de ETA José Bernardo Bidaola –fallecido en 1976 tras un tiroteo con la Guardia Civil– por el de plaza de la Libertad” (azpimarraketa gurea da)

Beste hainbeste egin zuen, 2007ko abenduaren 11an, notizia bera ematerakoan, El Pais-ek:

José Bernardo Bidaola –muerto en un tiroteo con la Guardia Civil en 1976– (azpimarraketa gurea da)

**25.** Gaiari buruz ETApM-k 1976ko ekainaren 6an agiri bat atera zuen (agiria osorik “Argazkiak eta agiriak” atalean dago). Bertan ez da agertzen Iruñeako komisaldegia aipamenik, baina honakoa dio:

“Con las pruebas obtenidas hasta el momento (prosigen las investigaciones) podemos asegurar que Txirrita una vez detenido, y después del “lógico” interrogatorio y las conseguientes torturas, fue asesinado y trasladado el cadáver hasta cerca del lugar del tiroteo” (azpimarraketa gurea da)

Ikerketak aurrera jarraitzen zuela aipatzen zen testu horretan. Eta “Euskadi ta askatasuna” ko tomoan berriz honakoa zioen:

“ETApM afirmó que Txirrita había muerto en el cuartel de la Guardia Civil de Iruñea” (azpimarraketa gurea da)

Baieztapen hori agiri batean egingo zuen ziuraski. Lazkaoko liburutegian begiratu dugu, baina ez dugu beste agiriirik aurkitu

**26.** Zer dela eta joan ziren Guardia Zibilak Txirritaren etxera? Guardia Zibilen eskuetan bazegoen ez da oso ulergarria halako momentu delikatu batean, Guardia Zibilak, egunean bertan, bere etxea miaztera agertzea. Sarako basoetan baldin bazegoen, nola zuen Guardia Zibilak Txirritaren berri? Txirritak Lizarrietan galdu zuen karteran aurkitu zuten DNI-aren pistari jarraituz joan al ziren miaketa egitera? Hala justifikatu zezaketen Guardia Zibilek miaketa

ABC egunkariak 1976ko maiatzaren 27an honela egin zuen egun hartan gertatu zenaren kontaketa:

“En el lugar del hecho se recogió una pistola calibre 9 Parabellum, de las usadas por la organización ETA, y una escopeta repetidora Remington, calibre 12, con señales ambas de haber sido disparadas, así como una cartera de bolsillo, al parecer perdida en la huida, conteniendo DNI a nombre de José Bernardo Bidaola Achega, nacido en Lizarza (Guipúzcoa) el 28-10-53 ... un permiso de conducir a nombre del mismo y un carné de la Federación de Montañismo, 1.500 pesetas y 30 francos nuevos”

Txirritaren DNI-ari buruz ABC-k dioena ezin dela horrela izan dio Borda-k karnet faltsuarekin zeudelako. Iparraldean karnet legalak eta pasaporteak erakundeari entregatzen zizkioten eta karnet faltsuarekin joaten ziren hegoaldera. Gai honi dagokionez nahiko zorrotz aritzen omen ziren. Ez omen zen posible, asko ez bazen despistatu behintzat, Txirritak DNI-rik aldean eramatea

Txirrita desagertuta egon zen artean arrebak dio paisanoek gelditu egiten zituztela, bozina jotzen zietela ... hala ibili zirela eurekin

**27.** Eusko Jaurlaritzak 2015eko uztailen kaleratu zuen “Oroitzapenezko ekintzak eta biktimen aitortza sustatzen laguntzeko udalei eskaintzen zaien agiri informatiboan”, Tolosa eta Lizartzako herriei dagozkien agerietan Txirritaren kasua “egiaztatze eta ikerketa lan handiagoa behar duen kasu” bezala agertzen zen. Kontua da egiaztatze eta ikerketa lan handiagoa behar badu zergatik ez den egiaztatze eta ikerketa lana burutzeko bitarteko ofizialik jarri, jakinda beste kasu batzuetarako *baliabide guztiak* jarri izan direla. Kasua argitzeko garrantzitsua litzateke ondorengo informazioa lortzea: 1) Autopsia lortzea; 2) gorpua agertu zeneko informe poliziala; 3) bertsio ofiziala; 4) bilaketa lanetan ibili zirenetakoren batek gorpua agertu zen leku zehatzean begiratu zuen aztertzea; 5) ETAp-m-k Txirrita Iruñean eduki zutela dioen agiria; 6) Etxalar eta Sara eta ingurutako jendeak kasuari buruzko informaziorik ote daukan aztertzea;

**28.** 2014ko Internet-eko “Gogoan hartzeko izenak” orrialdean honakoa zekarren: “Sin duda el testimonio más elocuente lo dio un guardia civil del puesto de Etxalar, que un día de borrachera contó en un bar de la localidad cómo habían detenido al difunto”. Testigantza hau jasotzea eta baieztatzea komeniko litzateke

## ■ Azken orduko oharrak

Azken orduan, lana osatu eta diseinatu ondoren, jaso ditugunak jarri nahi genituzke hemen:



1) Sarako herriko mutilaren testigantza jasotzeko aukera izan dugu. Herriko mutila aguazilari deitzen diote Saran. 1976ko maiatzaren 28an agindu bat jaso zuen Josep Barberon saratarrak, Sarako herriko etxeko (udaletxeko) herriko mutilak. Agindua honakoa zen: joan zedila Etxalarko usategietako oihanera (basora) eta begiratzeko ongi inguru guztiak. Gorpu bat zegoela bertan eta bilatu zezala. Mugaz harantz, Sara alderantz, begiratzeko agindu zioten. Joan zen eta bizpahiru ordutan aurkitu omen zuen gorpua. Txirritarena zen. Erakundeak, familiak eta lagunek behin eta berriz burutu zituzten bilaketetan lortu ez zutena bizpahiru ordutan lortu zuen Josep Barberon saratarrak. Gorpua aurkitu ondoren jendarmeei deitu zioten. Hauek bertara joan ziren, baina iluntzen ari zen ordurako eta ez zegoen baldintza egokirik argazkiak ateratzeko. Gorpua zaintzen geratu ziren bi jendarme eta hurrengo egunean atera zituzten argazkiak. Gorpuaren bila joateko herriko etxeko idazkariak agindu zion. Idazkari honi galdetu diogu ea berari nork esan zion gorpuaren bila joateko, baina ez du oroitzen. Datu importantea litzateke jakitea ea nork egin zuen Sarako herriko etxera deia edo nork bidali zuen abisua

2) Jexux Bidaolak kontatu digu Iruñean anaiaren desagertuaren denuntzia jarri zutenean, maiatz erdi aldeara, mehatxuak jasotzen hasi zirela. Balak eta dianaren marrazkiak hasi omen zitzaizkien iristen sobreetan eta anaia bezala eurak ere hil egingo zituztela mehatxatzen hasi omen zitzaizkien telefonoz

3) Piarres Larzabal-en “Nere mendixkatik, ETA-ko gudariez apez bat mintzo” liburuko 99. orrialdean Txirritaren kasua aipatzen da: “Etxalarko Polizteian, gaitzeko oihu-marrumak entzun zituztela, tirokada horren ondotik, norbeit torturatzen balute bezala”. Ez dakigu nondik atera zuen Piarres Larzabal-ek infomazio hau. Etxalartarrei galdetu beharko zaie halakorik gogoratzen duten

4) Aztertu gabe geratu zaigu Txirritarena ETako kide bat desagertzen zen lehen kasua izan ote zen. Pertur 1976ko uztailen desagertu zen, baina ez dugu aztertu aurrez desagertu kasurik izan ote zen

## ■ Argazkiak eta agiriak



■ Txirrita hil ondoren atera zen oroigarria

**TXIRRITA: NUEVA VICTIMA DEL TERRORISMO GUBERNAMENTAL**

Hoy somos objeto de una de las oleadas represivas de mayor intensidad que se han producido jamás en Euskadi; ni en los tiempos de Franco, en el que la represión y la tortura eran sistemáticas e indiscriminadas, se han dado casos similares, en donde el ser humano ha sido sometido a degradaciones de todo tipo.

Ahí tenemos los casos de Amparo Arangoa, José Agustín Atxega, Eugenio Sasietta, y un larguísimo etc... que han sufrido torturas como la "bañera", el "quirófano", golpes innumerables, cargas eléctricas, coacciones psicológicas, etc... Esto nos demuestra con claridad el salto represivo que se está produciendo, sin embargo, los hechos no terminan ahí: el 25 de Abril José Bernardo Bidaola "Txirrita" de 23 años, natural de Tolosa fue herido por la Guardia Civil junto con Iñaki Hernández, para posteriormente ser detenidos. El 28 de Mayo (al cabo de un mes) aparecería el cuerpo de Txirrita abandonado cerca de la muga y en estado de descomposición, a varios kms del lugar del tiroteo.

Con las pruebas obtenidas hasta el momento (prosigen las investigaciones) podemos asegurar que Txirrita una vez detenido, y después del "lógico" interrogatorio y las consiguientes torturas, fue asesinado y trasladado su cadáver hasta cerca del lugar del tiroteo.

Todo este montaje, cuyo móvil fue el acabar con la vida de un revolucionario vasco, militantes de ETA, nos muestra una vez más, el verdadero carácter de las fuerzas represivas, y en definitiva del régimen juancharlista.

Todos estos hechos hacen dar la razón a todos aquellos que desde ya hace tiempo venimos exigiendo la DISOLUCIÓN DE TODOS LOS CUERPOS REPRÉSIVOS, así como la PETICIÓN DE RESPONSABILIDADES A SUS MIEMBROS MAS DESTACADOS. Y ello no sólo en la medida de hacer justicia sino porque es la única manera de que el Pueblo Trabajador Vasco pueda ejercer libremente su indiscutible derecho a regir sus propios destinos.

No permitiremos que estas torturas y asesinatos queden impunes. Y en este sentido pedimos a todos los trabajadores y a todo el pueblo de Euskadi, se movilice activamente para impedir que estos hechos puedan volver a ocurrir.

Para que todas las aspiraciones obreras y populares no sean, en última instancia, ahogadas por la brutal intervención de las fuerzas represivas:

¡Organicemos comités antirepresivos en todas las fábricas, pueblos, barrios, universidades, etc!

¡Exijamos juicios públicos para todos los criminales y torturadores fascistas!

¡Exijamos la disolución de la Guardia Civil, Policía Armada, B.P.G., y de todas las bandas fascistas perapoliciales!

¡ORGANICEMOS Y APOYEMOS TODO TIPO DE ACCIONES EN RESPUESTA AL ASESINATO DE NUESTRO COMPAÑERO TXIRRITA!

6 de Junio de 1.976.

GORA EUSKADI ASKATUTA !!  
GORA EUSKADI SOZIALISTA!!



MAITE MANIORT  
DOCTEUR EN DROIT  
AVOCAT  
43, AVENUE FOCH  
TEL. 24.13.04

64200 BIARRITZ, LE

25 Juin 76

Bidaola - M. Castells

Mon cher Confrère,

Si je ne vous ai pas écrit plus tôt pour vous tenir au courant c'est qu'il a fallu tout d'abord attendre les résultats de l'autopsie puis au vu de celle-ci, nous nous sommes rendus sur place ce matin avec le Juge et le Procureur

Il ressort de ces éléments que:

- le malheureux BIDAOLA n'a pu mourir de sa blessure. Il était blessé d'une balle au talon qui est ressortie, aucun hémorragie n'a eu lieu  
Les conclusions sont formelles: Bidaola n'a pu mourir de cette blessure

Avant la mort, il venait de prendre un repas léger  
Le corps ayant séjourné près d'un mois dans l'eau, sur le dos, le ventre était hors de l'eau complètement mangé par les insectes et les bêtes

Il n'a pas été possible de savoir s'il avait été étranglé. Par contre il ne portait aucune trace d'ecchymoses sur les cuisses

Plusieurs hypothèses peuvent se présenter à l'esprit:

- Bidaola est mort d'épuisement et de peur  
On a retrouvé son corps au fond d'un ravin profond, dans l'eau, sa chaussure droite enlevée, le fusil étant posé contre un arbre au dessus du torrent  
Il avait fait au moins 1 km en territoire français, dans des pentes très fortes

- Bidaola a pu glisser sur une pente et tombé, assommé

dans le ruisseau

- Bidaola aurait été victime d'un règlement de comptes entre camarades

Cette hypothèse paraît à exclure: il avait de l'argent sur lui et son organisation aurait revendiqué l'exécution

Ceux-ci prétendent être partis le chercher le jour de l'accrochage et le lendemain à 20

Il est possible qu'ils soient passés à côté sans le voir

- Il semble exclu que la police espagnole l'ait ramené à cet endroit: en effet c'est vraiment très profondément en territoire français à 50 m de la route menant au col de Lizarieta

Pour aller à pied avec un cadavre, il faut passer 2 ravins très profonds et faire au moins 1 km à pied

L'hypothèse la plus vraisemblable paraît être la mort d'épuisement due à un malaise

Je suis à votre disposition pour tous renseignements complémentaires

Je pense que la famille est désireuse de récupérer l'argent que Bidaola avait sur lui

En ce cas, veuillez me faire parvenir sur papier libre un pouvoir signé du père de Bidaola et de sa mère dans lesquels il est écrit:

"Je soussigné Bidaola donne par les présentes pouvoir à Me Maniort de prendre en mes lieu et place l'argent trouvé sur la personne de mon fils Bidaola (nombre)

Vous joindrez à ce pouvoir photocopie de la carte d'identité de M. Bidaola père et mère. Faire précéder la signature des mots écrits à la main "Bon pour pouvoir"

Dès réception de cette pièce, je pourrai vous faire parvenir les fonds

Agnès Bidaola  
Je viens de recevoir la visite des frères Bidaola et je leur ai donné le pouvoir à faire signer. Ne vous préoccupez donc pas à ce sujet

## Hallazgo, por gendarmes franceses, del cadáver de un militante de E. T. A.

### Los familiares de José Bernardo Bidaola Achega habían presentado denuncia por su desaparición

Saint-denis de Laun (Francia), 30. (Efe.) — El cadáver de José Bernardo Bidaola Achega, refugiado vasco español, de 25 años, con residencia en Saint-Jean de Luz, fue encontrado por unos guardas, al pasado viernes, cerca del pueblo de Larre, a pocos kilómetros de la frontera franco-francesa.

Según la información, de fuente oficial, que no ha sido di-

visgada hasta hoy, la muerte data de varias semanas, y los policías franceses lo relacionan con un tiroteo que se produjo el 25 de abril cerca de Echalar, en España, entre una patrulla de la Guardia Civil y un grupo de militantes de ETA.

La versión que parece probable es que Bidaola resultó gravemente herido en el citado tiroteo y que acompañado de otros dos compañeros del grupo logró pasar la frontera, pero murió a poco de entrar en territorio francés, abandonando entonces el cadáver sus acompañantes.

En las últimas y junto al cadáver de José Bernardo Bidaola Achega, conocido en Francia como miembro activo de la rama político-militar de ETA, encontraron los gendarmes una pistola automática, un fusil con el cañón cortado y un claro número de cartuchos con balas de las que están utilizando para sus movimientos.

**JOSÉ BERNARDO BIDAOLA, HALLADO MUERTO**

Madrid, 30. (Efe.) — José Bernardo Bidaola, integrante de un comando de ETA, ha sido hallado muerto cuando el fin de semana, abandonado en el campo de su compañía, cuando había pasado de un asentamiento con la Guardia Civil. Informa hoy el diario "Le Monde", que aparece en el diario "Arriba".

El cadáver —según el autor del material que había como su fuente de información una voz anónima desde la sede del Hotel de Mayone (Francia)— fue

hallado por la guarnición de Mauleon con una herida de bala, una en el pecho y la otra de la ingle, que probablemente le interrumpió el flujo sanguíneo, otra en el brazo derecho, esta limpia de sangre y una tercera en la cabeza.

Los característicos de la última herida permitieron afirmar que el herido murió con sus sufrimientos por el dolor que le ocasionó la pérdida de flujo sanguíneo en la zona de la ingle, antes de abandonar el silenciosa cuenta de la gravedad de las heridas recibidas en el alto de Echalar.

Resulta extraño —se dice después— que no haya sido hallado ningún tipo de arma en el lugar del hecho, circunstancia que obligará a realizar nuevas investigaciones, ya que por los indicios resulta evidente que el herido fue ayudado a bajar hasta aquel lugar y que, quizá, antes de la proximidad de las fuerzas del orden, fuera una botella de coñac con toda su suficiencia antes de abandonarlo o más tarde, cuando volvieron por él, decidieron hacerlo así. Todo ello está pendiente de la autopsia.

Como se recordará, los familiares de José Bernardo Bidaola presentaron una denuncia por su desaparición.

Bidaola habría resultado herido en un encuentro con la Guardia Civil, ocurrido días pasados, en el monte de Echalar.

## SACUCCI ADMITE HABER DISPARADO

Roma, 30. (Efe.) — El diputado socialista Sandro Sacucci ha admitido haber efectuado en la noche del viernes algunos disparos en la plaza de San Giovanni —zona localizada próxima a este templo— donde el asesinato de un militante electoral, un joven comunista murió de un tiro y otro resultó gravemente herido.

Sacucci, sin embargo, ha declarado que hizo uso del arma de fuego para intentar una pacífica intervención armamentística que lo había atraído al terreno de su militancia electoral, insistiendo en que él nunca había efectuado disparos. Hasta la actualidad el diputado del movimiento socialista nacional —ha asegurado— ha entregado a los investigadores la pistola con la que él fue efectivamente disparado, pero en una de calibres 6,35, pero en la segunda o tercera a la inmundicia parlamentaria o porque de las intervenciones que le han sido formuladas en este sentido por su propio partido.

## NADINE CHAVAL HA SIDO LIBERADA EN MEJICO

Méjico, 30. (Efe.) — Nadine Chaval, hija del embajador belga en Méjico, que fue secuestrada por un grupo de guerrilleros en esta ciudad, ha sido puesta en libertad esta noche. La joven fue dejada en la sede diplomática turca, en Mauleon, por la familia entregó ocho millones de pesas (42.250.000 pesetas) a los guerrilleros, que inicialmente habían solicitado diez millones de pesas.

Donostiako "Hoja del Lunes" egunkariko notizia.



Taldeak muga zeharkatzeko egin nahi zuen ibilbidea azaltzen da argazki honetan. Tiroketa izan zenean belar meta ugari omen zeuden zelaian




■ Belar metak Guardia Zibilek tiroetatik babes-teko erabili zituzten Borda, Tala, Txirrita eta Iñakik



■ Iñaki eta Txirrita zauritu ziren lekuak



■ Iñaki zauritu zuten lekua



■ Txirrita zauritu zuten lekua



■ Txirritaren gorpua agertu zen lekua.



■ Ezkerretik eskuinera Eulogio Talavera Merino, "Tala"; Jexux Bidaola, Txirritaren anaia; Pepi Bidaola, Txirritaren arreba eta Gregorio Garitaonandia Arrillaga, "Borda"



■ Eulogio Talavera Merino, "Tala"; Ander Lizarralde, txostenaren egilea; Gregorio Garitaonandia Arrillaga, "Borda"



■ Iñaki Hernandez Lasa, "Iñaki" eta Ander Lizarralde, txostenaren egilea

